BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

2630

14/2015 DEKRETUA, ekainaren 8koa, lehendakariarena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko bi kide aldatzeko dena.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 5.3 artikuluak ezarritakoaren arabera, lehendakariaren eskumena da ordezkaritza handiena duten sindikatuen konfederazio eta erakundeek batzordean dituzten kideak izendatzea, erakunde horiek beren ordezkariak aukeratu ondoren; bestalde, lege horren 7. artikuluaren arabera, batzordeko kideen agintaldia lau urterako izango da, baina, hala ere, berriro ere aukeratu ahal izango dira.

Dena dela, batzordean ordezkaritza duten erakunde, korporazio edo entitateek titular edo ordezko izendatu dituzten pertsonak aldatzeko aukera dute; eta izendatu berria kargu horretan arituko da ordezkatutako pertsonak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean bete beharreko lau urteko epea igaro arte.

Aipatutako legearen 5. artikuluan 7.az ezarritakoa betetzeko, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak aukeraketa berriak egin ditu.

Horren ondorioz, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Patxi Olabarria Furundarena jauna Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kide titular izendatzea, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak aukeratu ondoren, Agustin Mendiola Gorospe jaunaren ordez.

2. artikulua.– Fco. Javier Sanz Santaolalla jauna Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko ordezko kide izendatzea, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak aukeratu ondoren, Javier Goienetxea Urkaregi jaunaren ordez.

3. artikulua.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko ekainaren 8an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.